

PRENTSA OHARRA 2019.05.10

Euskara maila egiaztatzeko azterketak egingo dira Madril, Bartzelona eta Buenos Airesen

Etxepare Euskal Institutua bigarren urtez arduratuko da Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean zedarritutako B1, B2 eta C1 euskara-mailak egiaztatzeaz, euskararen eremutik kanpoko Euskal Etxeetan.

2010. urtean **Euskara Munduan** programa sortu zenetik, urtero egin izan dira azterketa horiek euskararen eremutik kanpo, **HABE**ren gidaritzapean. Euskara Munduan programa Etxepare Euskal Institutuaren kudeaketa esparrua igaro zen 2018. urtean, eta geroztik, bera da **Ezohiko Deialdi** izeneko proba hauek antolatzearen arduraduna, HABEren deialdi eta azterketa ereduak erabiliz.

Madril eta Bartzelona izan ohi dira deialdi bakoitzean euskararen eremutik kanpo azterketa egiteko leku finkoak. Horiez gain, **espainiar estatutik kanpoko leku ezberdin bat** hautatu ohi da urtero azterketa egiteko, izen-emate kopuruak hala eskatzen badu. Aurtengo kasuan, Argentinako **Buenos Aires** hiriburua izan da leku hautatua, eta bertan nazioarteko edozein euskara ikaslek izan du izena emateko aukera.

Euskararen eremutik kanpo egingo den lehen azterketa **Madrilgoa** izango da. Maiatzaren 11n izango da, larunbat honetan. Bertan, **guztira, 36 ikaslek** eman dute izena: B1eko 10ek, B2ko zazpik eta C1eko 19k. Hurrengo azterketa **Bartzelonakoa** izango da, maiatzaren 18an. Bertara, C1 mailako **lau ikaslek** eman dute izena. Amaitzeko, **Buenos Airesko** azterketa denbora tarte bat barru izango da: uztailaren 27an. Hura egiteko, **22 ikaslek** eman dute izena guztira: B1eko 10ek eta B2ko 12k, hain zuzen. Kasu guztietan, azterketaren ereduak



Euskal Herrian egiten diren azterketa eredu berberak izango dira, eduki eta zailtasun mailan.

Etxepare Euskal Institutuak iaz egin zuen lehen aldiz azterketa honen ezohiko deialdiaren kudeaketa Euskal Etxeetan. 2018an, Madril eta Bartzelonan egindako azterketetan **40 titulu eman ziren guztira**. Euskara Munduan programa 2010. urtean sortu zenetik, iazko azken deialdira bitarte, **170 ziurtagiri eman dira guztira** euskararen eremutik kanpo.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus